



Deialdia, zerbitzu anitzetako enpleguaren lanpostu bat aldi baterako betetzeko, oposizio-lehiaketa bidez, eta izangaien poltsa bat eratzeko, sor daitezkeen beharrak asetzearren

OINARRIAK

1. oinarria.– Arau orokorrak.

Deialdi honen xedea da betetzea, oposizio-lehiaketa bidez, zerbitzu anitzetako enpleguaren lanpostu bat Olaztiako Udalaren zerbitzura, aldi baterako eta administrazio araubidean. Xedea da, halaber, izangaien poltsa bat eratzeko, sor daitezkeen beharrak asetzearren. Zerbitzu anitzetako enpleguaren lanpostuaren eginkizunak izanen ditu.

Lan-poltsaren zerrenda osatuko dute hautapen-prozesu honetan ariketa teorikoa, gutxienez, gainditzen duten izangaiak, betiere deialdi honen bigarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Ariketa hori puntuazio-ordena zorrotzaren arabera ordenatuko da, baldintza hauen 6. oinarrian ezarritakoaren arabera. Zerrenda 5 urtez egonen da indarrean, edo beste deialdi bat egin arte, etorkizunean aldi baterako kontratazioak edo ordezkapenak egiteko Olaztiako Udaleko Zerbitzu Anitzetako lantaldean gerta daitezkeen beharrak asetzeko. Aurreko deialditik eratorritako zerrenda horren ordezkoa izango da.

Lanpostu hutsak betetzeko aldi baterako bitarteko kontratuak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera, bitarteko langileak izendatu eta hiru urtera amaituko dira.

Salbuespenez, bitarteko langileak aldi baterako betetzen duten lanpostuan jarraitu ahal izango dute, baldin eta dagokion deialdia hiru urteko epean argitaratu bada, bitarteko langileak izendatzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta EPOLTBren 70. artikuluan ezarritako epeen arabera ebazten bada. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte iraun ahal izango du, eta kargutik kentzeak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko.

1.2. Egin beharreko hautapen probak 5. oinarrian agertzen dira.

1.3. Deialdi honen ondorioz izendatzen diren izangaiak administrazio-kontratudunak izanen dira eta Gizarte Segurantzaren inskribatuko dira, eta bertan alta emanen zaie. Olaztiako Udalaren plantilla organikoan ezarritako ordainsariak izanen dituzte.

Aldi baterako kontratua izanen dute, administrazio araubidekoa, Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren 88.b) artikuluari eta hurrengoei jarraikiz. Kontratu hori bukatuko da lanpostua behin betiko betetzen denean, dagokion erregelamenduzko prozeduraren bidez.

Era berean, kontratua bukatzeko zergatia izanen da Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatuzko arauak ezartzen dituen irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren 8. artikuluan aipatuetariko edozein.



Bi hilabeteko probaldia ezartzen da. Epe horren barrenean, alde batek nahiz besteak desegin dezake kontratua, alde bakarreko erabakia hartuta.

1.4. Lanaldia administrazio dei-egileak ezarriko du, zerbitzuaren beharren arabera beti. Hala ere, noiznahi alda daiteke. Lanpostua betetzeak guardiak egitea ekarriko du, Udalak ezarritako sistemaren arabera.

1.5. Lanpostuak D mailari dagokion oinarrizko lansaria izanen du, Ordainsarien behin-behineko erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, eta onesten diren osagarriak, administrazio dei-egilearen plantilla organikoan ezarritakoak.

Oro har, eginkizun hauek izanen ditu lanpostuak, besteak beste:

–Zerbitzu anitzak, loturik daudenak instalazio eta obretako mantentze-lan orokorren lantaldearen jardurekin, eta haiei jarraipena egitea, egokiak izan daitezzen horien funtzionamendua, kontserbazioa eta mantentzea.

–Udal bulego, instalazio eta biltegietako igeltserotza lanak, oro har, eta horien mantentze-lanak; pintura lanak ere bai.

–Lorezaintzako lanak eta espazio publikoen mantentze-lanak: belarra ebakitzea, zuhaixketan eta zuhaitzetan inausketak egitea, sastrakak eta belar txarrak kentzea, ureztatzeak instalatzea eta programatzea, fitosanitarioak aplikatzea, zapaldak eta parterrak prestatzea, etab.

- Mekanika. Udal makineria, ibilgailuak, lanabesak eta tresnak maneiatu, mantendu eta konpontzea. Biltegiko kontrola.

- Eraikinen eta hiri altzarien mantentze-lanak. Oztopo-zutoinak, barandak, seinale horizontalak, pasabideak, aparkalekuak, zebrabideak, eta abar.

–Leku batetik eramatea eta paratzea altzariak eta tresnak. Jai eta ekitaldi publikoetan, muntatzea eta desmuntatzea agertokiak, hesiak eta gainerakoak.

–Ibilgailuak gidatzea eta makinak maneiatzea.

–Udalaren azpiegitura eta egoitzetan mantentze eta konpontze lanak egitea: iturgintza, elektrizitatea, pintura, igeltserotza, soldadura, zurgintza, mekanika, garbiketa, zangak ireki eta ixtea.

–Eskatzen zaizkion instalazio berriak eta hobekuntzako jarduketak egitea, baldin bere mailakoak badira, eta lanean erabiltzen diren ibilgailuak zaindu eta mantentzeko oinarrizko lanak egitea.

–Olaztiko Udalak eta bertako kontzejuek programatzen dituzten festetarako eta kultur ekitaldietarako prestakuntzan eta garbiketan laguntzea, baita Olaztiko Udalak laguntzen edo babesten dituen ekitaldietan ere.



–Udaleko beste zerbitzu batzuei laguntzea, hala eskatzen zaionean, eta kanpoko zerbitzuekin koordinatzea, langile espezializatuak behar direnean.

Halaber, zerbitzu anitzetako lanpostuaren eginkizun izanen dira honako eginkizun orokor hauek:

–Segurtasun eta higiene arauak betetzea, behar bezala baliatuz lan bakoitzean erabiltzen diren babes-ekipamendu egokiak.

–Udalaren azpiegitura, egoitza eta ekipamenduetan ikusten diren akats, matxura eta hausturen berri ematea arduradunari aldiro eta garaiz, eta zerbitzuen hobekuntza bultzatzea eta hartan laguntzea eta, hartara, hobekuntzarako lagungarri izan daitezkeen ekintza eta aldaketak proposatzea.

–Lanerako ezarritako arau, prozedura eta zehaztapen guztiak ezagutzea eta aplikatzea.

–Kasuren batean behar izanez gero, egoerara egokitzea, lanorduekin malgutasunez jokatzuz, ezarritako lan programa eta zerbitzuaren beharrak betetzeko.

–Bide eta eremu publikoak egoera onean ote dauden begiratzea, baita udal eraikinak ere, eta haien mantentze-lan eta/edo hobekuntzarako proposamenak egitea.

–Edozein eratako udal zerbitzuak ematea, eta hala Alkateak nola organo eskuordetuek haren esku uzten duten beste edozein zeregin; guztiak ere bere eskumen, maila eta kategoriaren barnean.

2. oinarria.– Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Lanpostu honetarako lehiatzen direnek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

a) Adinez nagusia izatea eta Espainiako nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasuneko edozein estatutakoa; bestela, ahaidetasun harremana izatea maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legean adierazi bezala. Halaber, langileen zirkulazio librea jasorik Europar Erkidegoak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio eremuko pertsonak izatea.

b) Eskola Graduatuaren titulua, Lanbide Heziketako erdi mailakoa edo baliokidea edo DBHkoa.

c) Euskaraz jakitea, B1 mailaren titulua aurkeztuz egiaztatua, edo eskatutako hizkuntza eskakizuna duela egiaztatzen duen berriazko probaren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 103/2017 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

c) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

d) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik berezia ez egotea.

e) B motako ibilgailuen gidabaimena izatea.



3. oinarria.– Prozedura.

3.1. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat, aldi baterako langileak hautatzeko prozeduretan, bilatuko da kontratazioa ahalik eta arintasun handienarekin egitea.

Hala ere, deialdi honetan parte hartzeko, ez da ezinbesteko baldintza izanen enplegu-eskazaile edo enplegu-hobekuntzaren eskazaile gisa izena emanda egotea.

3.2. Deialdi honetan parte hartzeko eskabidea eta horrekin batera doazen agiriak Olaztiko Udalaren erregistroan aurkez daitezke (Irungo errepidea, 13, Orikain; 31194 PK), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bitartekoen bidez, udalaren goitza elektronikoa barne.

Eskabidea aurkeztu nahi bada 39/2015 Legean ezarritako bideetako bat erabiliz, posta elektronikoa bat igorri beharko da olazti@olazti.com helbidera, inguruabar horren berri emanez, eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barrenean. Eskabidea posta bulego batean aurkezten bada, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek, data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu aurretik.

Deialdi honen I. eranskinean argitaratutako ereduari egokituko zaio eskabidea.

Eskabideak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izango da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Deialdien testu osoa Udalaren web-orrian argitaratuko da, www.olazti.com.

Oinarri hauek argitaratuko dira, halaber, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta Olaztiko Udalaren web-orrian, www.olazti.com.

Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonak I. eranskineko eskabidea aurkeztu beharko dute, deialdi honetako 2. oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela adieraziz. Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean agiri horiek lortzeko moduan daudela egiaztatzen duen agiria edo agiri horiek eduki beharko dituzte, eta edozein unetan aurkezteko eskatu ahal izango zaie kontratua sinatu aurretik.

Minusbaliotasuna duten izangaiek honako hau erantsi beharko diote parte hartzeko eskabideari: minusbaliatu egoera frogatzeko agiria, organo eskudunak luzatua, eta osasun ziurtagiria, horren bidez frogatzeko desgaitasuna ez dela lanpostuko ohiko lana egitea eragotziko dien eritasun edo urritasun fisiko edo psikiko bat.

Izangai horiek ariketak egiteko epea eta moduak egokitzeko eskatzen ahalko dute, hala behar izanez gero. Kasu horietan eskabidean, beste orrialde batean, adierazi beharko dute zer nolako desgaitasuna daukaten eta zein egokitzapen eskatzen duten.



Eskabideak aurkezteko epea igarotakoan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian, eta 5 egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko edo aurkeztutako eskabideen akatsak zuzentzeko.

Izangai baztertirik ez badago, zuzenean argitaratuko da behin betiko zerrenda.

Aipatu epean alegazioak aurkezten badira, alegazio horiek ebatzi ondoren, Alkatetzak ebazpena emanen du, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta argitaratuko da Olaztiko Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian, hautapen-probak egiteko eguna, ordua eta tokia adierazita.

4. oinarria.– Kalifikazio epaimahaia.

4.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

-Epaimahaiburua: Joseba Vizuete Ascargorta, Olaztiko alkatea.

Ordezkoa: hark eskuordetutako pertsona.

–Lehen epaimahaikidea: Carlos Luquin Astiz, udaleko obretako arduraduna.

Ordezkoa: Nafarroako toki entitate bateko obretako arduraduna.

-Bigarren epaimahaikidea: Ignacio Azcarate, hirigintzaren arloko udal-aholkulariak

Ordezkoa: hark eskuordetutako pertsona.

- Hirugarren epaimahaikidea: Olaztiko Udaleko langileen ordezkariak proposatutako pertsona bat.

Ordezkoa: Olaztiko Udaleko langileen ordezkariak proposatutako pertsona bat.

-Laugarren mahaikide-idazkaria: Virginia Alonso Aparicio, udaleko kultur koordinatzailea.

Ordezkoa: Sandra Martínez Gutiérrez, udal idazkaria.

4.2. Hautaprobak egiten hasi aurretik eratuko da epaimahaia. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa gutxienez bildu gabe. Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoei, kontuan harturik ordezkari izan daitezkeela, baita ere, epaimahaikide ordezkari gisara izendatutakoak, bigarren ordezkari egitea beharrezkoa izanez gero.



4.3. Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo dei egileari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude. Halaber, izangaiek, aipatu gorabeherak suertatuz gero, epaimahaikideak errefusatu ahalko dituzte.

4.4. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

4.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek epaimahaia lagunduko dute, nork bere espezialitate teknikoan.

5. oinarria.– Probak.

5.1. Proba teorikoa: test motako ariketa idatzia, lanpostuan bete beharreko eginkizunekin lotutako gaiak buruzkoa (II. eranskina). Epaimahaiak erabakiko du probaren iraupena eta, gehienez ere, 40 puntu lor daitezke, eta baztertu eginen dira gutxienez ere 20 puntu eskuratzen ez dituzten izangaia. Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak eta nola zigortu akatsak aukera anitzeko erantzunak dituzten galderetan. Proba gaindituko dute ezarritako gehieneko puntuazioaren %50, gutxienez, lortzen duten izangaiek.

Bigarren probara deituko dira soilik proba egitean kalifikazio altuenak lortu dituzten 15 pertsonak, baldin eta lehen proban, gutxienez, 20 puntu lortu badituzte, eta betiere euskararen ezagutza frogatzen badute, 5.3. oinarriaren arabera. 15. izangaia lortutako nota zerrendako beste batzuek lortutakoarekin bat badator, guztiak igaroko dira hurrengo probara.

Plika itxien sistema erabiliz eginen da oposizioa.

Proba teorikoa gainditu duten izangaiek baizik ezin izanen dute egin proba praktikoa, eta euskararen ezagutza frogatu badute, 5.3. oinarrian ezarritakoa betez.

5.2. Proba praktikoa bat edo gehiago egin beharko dira, deialdi honen II. eranskinean agertzen den gairerendako gaiekin lotuta.

Epaimahaiak zehaztuko du proba honetako ariketak egun bakarrean edo desberdinetan eginen diren, baita horien iraupena ere, ezarritako edukien eta egoki jotako gainerako zehaztapenen arabera.

Apartatu honetan 60 puntu lortzen ahal dira gehienez. Probaren balorazio-irizpideak hura hasi aurretik zehaztuko dira. Proba gaindituko dute guztira ezarritako gehieneko puntuazioaren %50 (30 puntu) gutxienez lortzen duten izangaiek. Nolanahi ere, proba honek kasu praktikoa bat baino gehiago baditu, kasu bakoitza bere aldetik gainditu beharko da (bakoitzari esleitzen zaion puntuazioaren % 50 lortuz) proba osoa gainditu ahal izateko.



5.3 Euskara

Proba teorikoaren eta praktikoaren ondoren, gutxienez proba teorikoa gainditu duten izangaien artean, euskara-proba egingo zaie agiri ofizial bidez euskararen ezagutzaren baldintza betetzen dutela egiaztatu ez duten eta eskabidean hori egitea eskatu duten izangaiei.

Probak egiteko eguna eta tokia bide ofizialen bidez iragarriko dira.

5.4. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio agiri bat aldean dutela agertu beharko dute, eta oposiziotik baztertuta geldituko dira agertzen ez diren izangaiaiek eta nortasuna frogatzeko dokumentaziorik gabe agertzen direnak.

5.5. Hautaprobetan, desgaitasuna izanik halaxe eskatzen dutenek denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaldu dutenaren arabera.

5.6. Probak egiteko eguna eta tokia iragarriko dira Olaztiko Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian, www.olazti.com, probak egin baino gutxienez 3 egun lehenago.

5.7. Proba bakoitza egin ondoren, izangai bakoitzaren emaitzak argitaratuko dira Udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Probaren emaitza bakoitzaren aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta. Behin erreklamazioak ebatzita, eta hala badagokio, egin beharreko hurrengo probaren eguna eta tokia adieraziko dira.

6. oinarria.- Gainditu dutenen zerrenda

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa amaiturik, epaimahaiak alkate-udalburuari igorriko dio, espediente osoarekin batera, probak gainditu dituztenen zerrenda, guztira ateratako puntuazioaren arabera ordenatua, izangai bakoitzak oposizioko ariketetan ateratzen dituen kalifikazioak batu ondoren.

Proposamen hori Olaztiko Udaleko iragarki-taulan eta www.olazti.com web-orrian argitaratuko da. Proposamena loteslea izanen da deialdia egin duen administrazioarendako.

7.2. Azkeneko emaitzan berdinketarik izanez gero, proba praktikoan, osotasunean, puntu gehien lortzen dutenek izanen dute lehentasuna. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, proba teorikoan puntuazio altuagoa erdiesten duenaren alde jokatu da. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da Olaztiko Udalean, eta berdinduta dauden izangaiei deituko zaie zozketan egon daitezen.

Izangai-zerrendak izangaia deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei osasun-azterketa bat egingen zaie, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

7. oinarria.- Errekurtsuak.



Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Deialdiaren, haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, hautara, honako errekurtsu hauetako bat aurkez daiteke:

- a) Berraztertzeiko errekurtsua, egintza gauzatu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsuaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

Olazti, 2023ko martxoaren 9an. – Alkatea, Joseba Vizuite Ascargorta.



I. ERANSKINA ESKABIDE EREDU OFIZIALA

D./D^a.....andrea/jauna
(NAN/DNI:),
Helbidea/Dirección.....
.....
Telefonoa /Teléfono:.....
e-maila/correo electrónico:

AZALTZEN DU/EXPONE QUE: (X batez markatu/marcas con una X)

Deialdian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen ditu, denboran eta forman
Cumple en tiempo y forma, con todos y cada uno de los requisitos exigidos en la convocatoria.

Probetan parte hartzeko eskabidea aurkezten den egunean deialdiko baldintzak betetzen dituela adierazten du erantzukizunez, eta dokumentazioa eskatzen zaionean aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Declara responsablemente que cumple con los requisitos de la convocatoria a la fecha de la entrega de la solicitud para tomar parte en las pruebas y que se compromete a presentar la documentación cuando le sea requerida

Euskara proba egin nahi du / Desea realizar prueba de euskera

€ BAI/SI

€ EZ/NO



II. ERANSKINA

1. gaia. Aritmetikako eta geometriako oinarrizko erregelak.
2. gaia. Laneko arriskuen prebentzioko espezialitateak altueran dauden zuhaitzen lorezaintzako eta inausketako lanetarako.
3. gaia. Zuhaitzak, zuhaixkak, heskaiak landatzea, soropila lehengoratzea eta ereitea.
4. gaia.–Ezagutzea, maneiatzea eta mantentzea lorezaintzako eta mendiko produktuak, makinak eta erremintak (sasi-garbitzeko makina, belarra mozteko makina, heskai-moztekoa, aizkora, motozerra, altueran inausketako plataforma jasotzailea). Fitosanitarioen aplikazioa.
- 5.gafia. Kimaketa lanak: Zuhaitzen, zuhaixken, heskaien inausketa. Inausketaren oinarriak.
6. gaia. Ureztatze sistemak. Ureztatzeko sareak diseinatzea, instalatzea, mantentzea eta programatzea. Drainatze sistemak.
- 7.gafia. Basogintza.
8. gaia. Geolokalizazioa.
9. gaia. Mekanika. Udal makineria, ibilgailuak, lanabesak eta tresnak maneiatu, mantendu eta konpontzea. Biltegiko kontrola.
10. gaia. Soldadura. Kontzeptu orokorrak eta oinarrizko eragiketak.
11. gaia. Iturgintzako eta berokuntzako instalazioen mantentze-lanak: aparatu sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoiak, berokuntza zirkuituak, erradiadoreak betetzea eta purgatzea, galdara-gelak eta haien osagai bereziak.
12. gaia. Oinarrizko elektrizitatea. Argiketariaren oinarriko lanabesak zein diren eta nola erabili eta mantentzen diren (bihurkinak, guraizeak, aliketak eta beste lanabes batzuk). Eraikinetako banaketa koadroak, potentzia kontrolatzeko etengailua, magnetotermikoak eta diferentzialak. Hots egiteko zirkuituak (pultsadoreak, txirrinak). Oinarrizko argi zirkuituak: etengailuak, kommutadoreak, entxufe-oinak, lanparak, pitzarazgailuak eta erreaktantziak. Fluoreszente zirkuituak (pitzarazgailuak, erreaktantziak, lanpara fluoreszenteak). Zirkuitu bereziak (alarmak, larrialdiko argiak). Segurtasun arauak. Konpontze lanetan hartu beharreko arreta.
13. gaia. Herriko argien instalazioak. Aginte zentroak, babesak eta kontrol tresnak. Argien euskarrien banaketa. Kanpoan jartzen diren argiak: motak eta ezaugarriak.



14. gaia. Igeltserotzako kontzeptu orokorrak. Erremintak. Materialak. Zolatzea eta alikatatzea. Enkofratuak eta murrak egitea. Obrak zaintzea eta mantentze-lanak. Obra txiki eta ertainetako makineria maneiatzea. Zangak irekitzea, zoladurak konpontzea eta aldatzea, hala nola break, galtzadharriak, baldosa hidraulikoak, etab.

15. gaia. Arotzaren oinarrizko erremintak ezagutzea, maneiatzea eta mantentzea (mailuak, zerrak, trintxa, zulagailu elektrikoa eta beste osagarri batzuk, hala nola lixak, kolak...). Arotzeriako oinarrizko eragiketak: atek eta leihoak, sarrailak eta bonbinak doitzea. Pertsianak: Motak, mantentze-lanak eta konponketa. Segurtasun arauak. Konpontze lanetan hartu beharreko arreta.

16. gaia. Laneko arriskuen prebentzioa. Laneko segurtasunari eta higieneari buruzko arauen oinarrizko ezagutzak, laneko osasuna. Bide-segurtasuna: Lehen laguntzak. Aldamio metaliko tubularrak, eskailerak eta plataforma jasotzaileak segurtasun-baldintzetan erabiltzea.

17. gaia. Informatikako ezagutzak (word) eta txostenen idazketa.